



# Sorginen tren zaharra

**brauki**: gogotik, oldarrean.

**saguzarra**: gau-ainara.

Tren zaharra zen. Asperturik zegoen: beti burdin-bide berean ibili behar...

Behin batean, trenbidetik atera zen eta mendia gora abiatu. Treneko bidaiariak oihuka hasi ziren.

– Baina nora goaz? Nora? Erotua dea gure tren zahar hau? 5  
– Triki-traka... zia... zia... fiiiiittt! – egiten zuen. Ez zen nehon gelditzen.

Bere bidean beti aitzina zoan.

Mendian leize zilo bat ikusi zuen. Tunela zela uste zuen eta hartan **brauki** sartu zen. 10

Ilunpean deus ez zen ageri. Bidaiariak supiztekoak piztu zituzten. Orduan, leizeko **saguzarrak** airatu ziren eta trenean sartu.

– Fiiiiittt! Fiiiiittt! – egin zuen tren zaharrak.

Saguzarrak izitu ziren eta airez-aire trenetik kanpora hegaldatu. Gero buruz-behera jarri ziren berriz leize ziloan. 15

Trenak ilunpean jarraitu zuen baina bat-batean gelditu zen.

– Zer gertatzen da hemen? – galdetu zuten bidaiariak.

– Sorginak! Sorginak dantzan ari dira suaren inguruan! – erantzun zuen batek.

Euskal Herriko sorginak beren festa ospatzen ari ziren zilo hartan. 20

– Iu, iu, iu... Ia, ia, ia... Riau, riau!

Jauzika eta kantuz ari ziren. Edari sorgindua ere edaten zuten  
**bertz** handi batetik. Gure tren zaharra eta bere bidaiariak  
25 harriturik gelditu ziren.

Orduan, berrehun urteko sorgin gazte batek oihu egin zuen:

– Denak trenera!

Beren erratzekin sua itzali zuten eta denak trenean sartu  
ziren.

30 Trena leize zilotik atera zen. Gaua zen. Milaka izar zeuden  
zeruan dir-dir eta haien artean ilargi borobil-borobila.

– Tren txuku txuku tren! Mendi guzien gainetik, izar  
guzien azpitik, goazen airean, goazen – kantatzen  
zuten sorginek.

35 Trena zerura airatu zen, hegazkin bat bezala.

Luzaz ibili ondoan, gure tren zaharra gelditu zen, oso nekatua.

Herriko plazan, bidaiari guziak trenetik atera ziren, sorginak salbu.

– Andere-jaunak, eta zuek haurtxoak, zoazte etxera! – manatu  
zuten sorginek.

40 – Eta zuek? – galdegin zien tren zaharrak.

– Gu? Goazen denak ilargira!

Triki-traka! Triki-traka! Triki-traka... Tren zaharra eta sorginak ilar-  
gira joan ziren.

Ilargi betea delarik, ongi begiratzen badiozue, han ikusiko

45 dituzue: tren zaharra eta... sorginak.



bertz: tupin.

Elkar argitaletxeko Zipristin 1 liburutik egokua.



## 1 IRAKURGAIA ULERTZEN DUT

- Nolako trenea zen?
- Zer egin zuen egun batez? Zergatik?
- Non sartu zen lehenik?
- Zer ikusi zuen harpe ziloan?
- Zer ari ziren sorginak?
- Nola bukatu da bidaia?
- Zerez mintzo zaigu gehienik ipuin hau? Trenaz ala sorginez?

## 2 HIZKUNTZA ETA GRAMATIKA

► Hona irakurgai honetako pertsonaia nagusiak. Taula hau kopia ezazu pertsonaien izenak idatziz.

<b>t</b> .....	<b>i</b> .....
<b>s</b> .....	<b>b</b> .....

► Hitz zerrenda hau idatz eta hitz bat kanpora ezazu.

trenbidea – burdinbidea – bizikleta – geltokia – trenea – tunela – bagoia

► Hitz guztiak idatz, bakoitzari bere kontrarioa ondoan emanaz.



► Animalia baten ezaugarri-fitxa hau kopia eta izena emazu (irakurgaiaren aurkituko duzu). Animalia horrek beste izen bat ere badu. Zein ote?

Luzetasuna : **6 cm**  
Zabaltasuna : **35 cm**  
Pisua : **25 g**  
Bizi iraupena : **2 urte**

Zango eta hegalek bat egiten dute. Ez da beraz xoria bezala pausatzen ahal : horregatik da zintzilik ematen. Harpetan atzeman daiteke. Sekula ez zaio jendeari jazartzen. Txinatarrek zoriaren ikur edo sinbolotzat daukate eta artoski begiratzen dute.

**Izena :** .....